



ITURENGO UDALA
(Nafarroa)
31745

José Iparraguirre Altamira
Eusebio Elizalde Mariezcurrena
María Cristina Apezteguia Saldias
Teresa Miqueo Gamio
Francisco Javier Alchu Iparraguirre

2009ko azaroaren 20an, goizeko 10etan, Iturengo Herriko Etxean, legez egindako deialdiaren ondorioz, Ohiko Biltzarrean elkartzen dira ondoan aipatzen diren zinegotziak. Alkatea den, José M^a Gorosterrazu Elizalderen lehendakaritzapean, eta idazkaria den, Miguel José Belarra Tellechearen aitzinean, Gai Zerrendan sarturik dauden gai hauek aztertzen dira:

1. ZINEGOTZI BERRIA.

Mahai gainean utzi dute puntu hau, zinegotzi berria ez delako bertaratu.

2. AURREKO BILKUREKO AKTAK IRAKURRI ETA ONETSI.

Idazkariak azkeneko 4 bilkureko aktak irakurri ditu; ondoren, ahobatez onetsi eta izenpetu dituzte.

3. OBRAK EGITEKO LIZENTZIA ESKAERAK.

1. J.M.IA.k lizentzia eskatu zuen Argiñenea etxearen ondoan dagoen lursailean 1,20 metroko pareta eraiki eta baranda batekin itxitzeko. Obra egiteko lizentzia eman zitzaion 2009ko abuztuaren 20an egindako Osoko Bilkuran, baldintza honekin: *“Baranda jarri nahi duen tokian kalea meharra dela kontutan hartuz, eta zirkulazioan eraginik ez izateko, metro bateko tarteak utzi beharko du kalearen muga eta barandaren artean.”*

Idazkariak aipatu du I. Jn.a bertaratu zela Udaletxean eskaeran akats bat zegoela azaltzeko, baranda ez bai du etxeak duen luzaera guztian jarriko, kalea zabala den zati batean baizik, garajeko atea libre utziz. Eztabaidatu ondoren, ahobatez erabaki dute lizentzia aldatzea, aipatuko baldintza kenduz.

2. Idazkariak irakurri du J.M.E.G.k aurkeztu duen eskera, 32 metro karratuko garaje eta biltegia eraikitzeko 3. poligonoko 39. partzelan (Aurtizko Alta kalea). Ahobatez erabaki dute sustatzaileari jakinaraztea, obrak egiteko lizentzia lortu ahal izateko, teknikari batek egindako proiektua aurkeztu beharko duela Udaletxean, behar bezala bisatua. (Hirigintzako Prozedurari Buruzko Ordenantzaren 15. artikulua).

3. J.M.IA.k lizentzia eskatu du Argiñenea etxeko leihoak aldatzeko. Eztabaidatu ondoren, ahobatez erabaki dute obra egiteko lizentzia ematea I. Jn.ari. Obra hasi baino lehen, eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zerga ordaindu beharko du. Obraren aurrekontua, 4.473,78 eurokoa da eta ordaindu beharreko diru-kopurua, 134,21 euro.

4. J.M.S.A.k lizentzia eskatu du, “Larraldea” parajearen dagoen 2. poligonoko 294. partzelatik, 1.304,00 metro karratu bereizteko. J.O.L. arkitektoak egindako neurketa aurkeztu du horretarako. 2. poligonoko 538. partzelari elkartu ondoren, lurzoru urbanizazinean etxebizitza eraikitzeari zuzentzea da bereizketaren arrazoiak, Etxebizitza eta Lurraldearen Antolamenduko zuzendari orokorraren 144/2009 ebazpenak baimendu duen etxebizitza hain zuzen ere. Ekintzak lizentzia behar du, Lurraldearen Antolamendu eta Hirigintzako 35/2002 Foru Legearen arabera. Aipatutakoak kontutan hartuz, ahobatez erabaki dute: lizentzia ematea S. Jn.ari, “Larraldea”



ITURENGO UDALA
(Nafarroa)
31745

parajeen dagoen 2. poligonoko 294. partzelatik, 1.304,00 metro karratu bereizteko. Bereizi den zati hau 2. poligonoko 538. partzelari elkartu ondoren, 1.500,00 metro karratu izango ditu. Lursail nagusiaren gainerakoa, 1.466,10 metro karratuko azalerakin geratuko da, katastroan daukan azaleraren arabera.

5. Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitzako zuzendari orokorraren 86/2008 ebazpenak baimena eman zion A.M.A.V.ri, etxebizitza eraikitzeke 2. poligonoko 243. partzelan (lurzoru urbanizaezina). Agiriak aztertu ondoren, luzapenari aldeko txostena ematea erabaki du Udalbatzak ahobatez, Lurralde Antolamendu eta Hirigintzako 35/2002 Foru Legearen 117.3 artikulua xedatutakoarekin bat etorritz.

Puntu honetan baimendu diren obrak egiterakoan, baldintza hauek bete behar dira:

- Planeamendurako Arau Subsidiarioak jartzen dutena bete.
- Hirugarrengoen eskubideak errespetatu.
- Eskatu den obra baino gehiago ez egitea; espediente zigortzailea irekiko zaie, lizentziarik gabeko obrak egiten dituztenei eta emandako lizentzia betetzen ez dutenei.

4. ARAU SUBSIDIARIOEN ALDAKETA. 2. POLIGONOKO 99. PARTZELA.

Planeamenduko Arau Subsidiarioetako antolamenduko egiturazko determinazioen aldaketa aztertu dute, Iturengo 2. poligonoko 99. partzela hiri-lurrean sartzeko, unitate berri bat sortuz. J.R.B.M. da espedientearen sustatzailea. Lurralde Antolamendu eta Hirigintzako 35/2002 Foru Legearen 79, 70 eta 71. artikuluekin bat etorritz, ahobatez, erabaki dute:

1. Planeamendurako Arau Subsidiarioen aldaketari hasierako onespina ematea.
2. Akordio hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta Nafarroako Foru Komunitatean editatzen diren egunkarietan argitaratzea, hilabete bateko epean jendaurrean egoteko.
3. Espedientea igortzea Etxebizitza eta Lurraldearen Antolamendu Departamentura, hark txostena egin dezan Nafarroako Gobernuako departamentuen eskumenetako gaiez.

Francisco Javier Alchu sartu da.

5. 2010KO ESTATUKO FONDOA.

Idazkariak aipatu du Toki Inbertsiorako Estatuko Fondo berria onetsi dela 2010erako, zenbait baldintza eta ezaugarri berriekin. Iturengo Udalarik dagokion diru-kopuruarekin mediku-kontsulta berria eraikitzen jarraitzea erabaki dute ahobatez. Diru-laguntza eskatzeko behar den memoria prestatzeko agindua emango zaio arkitekteri.

6. 2009-2012 EPERAKO TOKI INBERTSIOEN PLANA.

Idazkariak aipatu du Nafarroako Gobernuak 2009ko urriaren 5ean hartutako erabakia, 2009-2012 eperako Toki Inbertsioen Plana onesten duena. Iturengo Udalak eskatutako zenbait inbertsio sartu dira bertan. 2010 urtean egin behar den obraren egitasmoa prestatzeko tramiteak hasiko dira (*Hodi nagusia berritzea biltontzitik sareraino*).



ITURENGO UDALA
(Nafarroa)
31745

7. 2008KO KONTUAK.

2008ko kontuen espedientea aztertu ondoren, aho-batez, erabaki dute:

1. Aldeko txostena ematea 2008ko kontuei.
2. Espedientea jendaurrean jartzea 15 eguneko epean.

8. 2009KO AURREKONTUAREN ALDAKETA.

Alkateak emandako ebazpena, 2009ko azaroaren 18koa, 2009ko aurrekontu orokorrean kreditu aldaketa egiteko 1. espedientea onetsi duena, berretsi egin dute ahobatez.

Ikuristik 2009ko aurrekontu orokorrean kreditu aldaketa egiteko 2. espedientea, ahobatez, erabaki dute:

1. Hasierako onespina ematea kreditu aldaketa egiteko espedienteari.
2. Espedientea jendaurrean jartzea 15 eguneko epean.

9. 2010ERA KO ZERGA-TASAK, TASAK ETA PREZIOAK.

Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legean ezarritakoari jarraituz, erregelamenduzko quorumarekin, aho-batez erabaki dute:

1. Honako zerga-tasa hauek mantentzea 2010 urterako:
 - Hirilurraren gaineko kontribuzioa: katastroko balio berri eta garbien % % 0,28a.
 - Landalurraren gaineko kontribuzioa: katastroko balio berri eta garbien % 0,652a.
 - Instalazio, eraikuntza eta obren gaineko zerga: obraren benetako kostu osoaren % 3a (exekuzio materialaren aurrekontua).
 - Hirilurren balio igoeraren gaineko zerga: oraingo indize eta tasak mantentzen dira ere.

2. Ur-hornidura eta saneamendua emateko eta zerbitzu egiteko tasak 2010 urterako: onetsitako ordenantza fiskalean ezarritako zenbatekoak.

3. Auzolanetik libratzeko ordaindu behar den diru kantitatea mantentzea 2010 urterako: 30,00 euro ordaindu beharko da auzolan bakoitzeko.

4. Erabaki honek 2010eko urtarrilaren 1ean hartuko du indarra eta indarra izanen du aldatu edo indargabetzea erabakitzen ez den bitartean.

5. Erabaki hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta Udalaren iragarki oholean argitara ematea, behar diren legezko ondorioak izan ditzan. Haren kontra egungo legeetan ezarritako



ITURENGO UDALA
(Nafarroa)
31745

errekurtsuak aurkeztu ahalko dira, (administrazioarekikoa edota aurretik eta aukeran, gora jotzekoa eta berraztertzekoa).

10. ORDENANTZA FISKALA.

Herriko jabari publikoan interes orokorreko hornidura zerbitzuak ustiatzen dituzten enpresen aprobetxamendu bereziaren tasa arautzen duen ordenantza fiskala aztertu dute gero. Eztabaidatu ondoren, Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legeko 325 artikuluan ezarritakoari jarraituz, ahobatez erabaki dute:

1. Herriko jabari publikoan interes orokorreko hornidura zerbitzuak ustiatzen dituzten enpresen aprobetxamendu bereziaren tasa arautzen duen ordenantza fiskala behin-behingo onestea.

2. Akordio hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzea, 30 eguneko epean jendaurrean egoteko.

11. ONDAREEN DESAFEKTAZIOA.

Espedientean dauden agiriak ikusirik eta Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legeko 103. artikulua xedatzen duenari jarraituz, ahobatez (arazko quoruma) erabaki dute:

1. Hasiera batean onestea Iturengo Elektra, S.L. udal enpresak udalerrian argi indarraren zerbitzua emateko beharrezko ondasunen kalifikazio juridikoa aldatzea (banatzeko sare elektrikoak -banabideak, zutoinak, etab.- transformazio zentroak, transformadoreak eta ekipo teknikoak, neurri ekipoak, lanabesak, etab.) ondareko ondasunak izendatzeko.

Kalifikazio juridikoaren aldaketa egokia eta legezkoa da, Sektore Elektrikoari buruzko azaroaren 27ko 54/1997 Legean lehia askearen printzipioa oinarri duen sistema elektrikoa eratu baitzen, eta argi indarraren garraioa eta banaketa liberalizatu baitziren, hirugarrenak sareetara iristea hedatuta, sareen jabetzak ez dakarrelako haren erabilpen eksklusiboa. 54/1997 Legearen arrazioen azalpenean berariaz aipatzen da ondokoa: "*[...] zerbitzu publikoaren zentzua baztertu da, [...] haren orde z hornidura bermatuko baitzaie espresuki nazio lurraldearen barrenean zerbitzua eskatzen duten kontsumitzaile guztiei*".

2. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzea erabaki hau, hilabete bateko epean jendaurrean egoteko. Inork alegaziorik aurkeztzen ez badu, behin betikoz onetsizat hartuko da ondasunen kalifikazio juridikoaren aldaketa.

12. LURSAIL KOMUNAL BATEN ERABILERA.

Espedientean dauden agiriak ikusirik eta Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legeko 172. artikulua xedatzen duenari jarraituz, ahobatez erabaki dute:

1. Hasiera batean onestea 3. poligonoko herrilurretako 438. lurzati 75 metro karratu F.E.A. Jn.ak aldi baterako okupatzeko espedientea eta baldintza ekonomiko-administratiboan plegua.



ITURENGO UDALA
(Nafarroa)
31745

2. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzea erabaki hau, hamabost egun balioduneko epean jendaurrean egoteko.

Espedientean dauden agiriak ikusirik eta Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legeko 172. artikulua xedatzen duenari jarraituz, ahobatez erabaki dute:

1. Hasiera batean onestea 4. poligonoko herrilurretako 38. lurzatiko 62 metro karratu J.A.E.A. Jn.ak aldi baterako okupatzeko espedientea eta baldintza ekonomiko-administratiboen plegua.

2. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzea erabaki hau, hamabost egun balioduneko epean jendaurrean egoteko.

Bestalde, “Bizkarreko-borda” parajea, 1. poligonoko herrilurretako 131. partzelan, bertan ehiza-txabola eraikitzeke lursaila Bizkarkoborda elkarteari utzi zitzaioela ikusirik, aurrerantzean ordaindu beharreko kanona 300,00 eurotan, gehi BEZa, finkatu dute ahobatez (2009ko urtea barne).

13. ALKATE JN.AREN EBAZPENAK.

Alkateak emandako ebazpen hauek ezagutuztat eman dituzte: 2009ko irailaren 10ekoa, non, lizentzia eman zitzaion Ibintza Kultur Taldeari, Joaldunen Egunean karpa eta txozna jarri eta Kapilla erabiltzeko; 2009ko irailaren 10ekoa, non, lizentzia eman zitzaion M.J.A.E.i, Domekenea etxea erreteiltzeko; 2009ko irailaren 25ekoa, non, baimena eman zitzaion M.E.A.ri, Ameztia auzora doan bideko 4 kurbetan konponketak egiteko; 2009ko urriaren 26koa, non, obrak egiteko lizentzia eman zitzaion M.R.S.S.i, Eguzkialdea lgoa etxean sukaldea eta egongela arteko pareta kentzeko; 2009ko urriaren 26koa, non, obrak egiteko lizentzia eman zitzaion C.A.H.ri, 2. poligonoko 87. partzelan daukan txabola eraberritzeko; 2009ko urriaren 26koa, non, lizentzia eman zitzaion M.M.G.ri, Kapenea etxea erreteiltzeko; 2009ko urriaren 26koa, non, lizentzia eman zitzaion J.M.I.A.ri, Argiñenea etxeko kontraleihoak aldatzeko eta galdara jartzeko; 2009ko urriaren 26koa, non, lizentzia eman zitzaion J.J.A.F.ri, Aizpurualdea lgo ezkerria etxeko leihoak eta balkoiko ateak aldatzeko; 2009ko urriaren 26koa, non, lizentzia eman zitzaion S.A.F.ri, Aizpurualdea lgo eskuina etxeko leihoak eta balkoiko ateak aldatzeko; 2009ko urriaren 26koa, non, lizentzia eman zitzaion J.I.A.ri, Iñigonea etxeko leihoak eta balkoiko ateak aldatzeko; 2009ko urriaren 26koa, non, lizentzia eman zitzaion A.M.A.F.ri, Aizpurualdea 3go eskuina etxeko leihoak eta balkoiko ateak aldatzeko.

14. ZENBAIT ESKAERA.

1. S.B.B.k “Asurdi” parajea erori diren 2 haritz eskatu zituen. Basozainak egindako balorazioa irakurri du idazkariak. Eztabaidatu ondoren, ahobatez erabaki dute 2 haritz ondo saltzea eskatzaileari, 10 eurotan.

2. J.M.F.O.k aurkeztu duen idazkia irakurri du idazkariak, Arrosenea eta Errementenea etxeen artean jarri duten euri-uren tutua Udalak ordaintzea eskatuz. Eztabaidatu ondoren, tutuaren kostua (57,00 euro) ordaintzea erabaki dute ahobatez.



ITURENGO UDALA
(Nafarroa)
31745

3. J.L.V.ek aurkeztu duen idazkia irakurri du idazkariak, O.E.I.A.k 2. poligonoko 152. partzelan arbolak bota eta zelaiune bat egin duela salatuz; zelaiune hau 151. partzelarako eskatu zuela adierazi du. Eztabaidatu ondoren, L. Jn.ari ondoko hau jakinaratzea erabaki dute ahobatez: I. Jn.ari lizentzia eman zitzaion 2009ko otsailaren 26an, 25 metroko pista eraikitzeke, 2. poligonoko 151. partzelara sartzeko, eta obra hau egin gabe dago oraindik; Udalak ez du zelaiunerik baimendu 152. partzelan.

4. ASAJA, UPA eta COAG sindikatuek nekazaritza eta abeltzaintza sektorearekin elkartasuna izateko bidali duten mozioa onetsi dute ahobatez. Erabaki hau Diputatuen Kongresura bidaliko da.

5. Baimena eman diote ahobatez GEEA Geologos, SLri, 2.poligonoko 36. partzelan dagoen ureztatze-sarbidea erabiltzeko sondeoak egiten.

6. A.O.U.k baimena eskatu du kartak uzteko buzoia jartzeko mutikoen eskola zaharreko atzeko paretan. Eztabaidatu ondoren, inguru horretan buzoiak jartzeko zenbait eskaera egin direla kontutan hartuz, ahobatez erabaki dute, alderdi horretan bizi diren biztanleen artean taldeko buzoi bat (kolektiboa) jartzeko proposatzea, eskola zaharraren inguru edo hurbilean. Erabaki hau jakinaraziko zaio O. And.ari, A.M.S.ri, G.L.M.ri, M.S.O.ri eta S.A.I.i.

7. Baimena eman diote Ibintza Kultur Taldeari Udaletxeko ganbaran antolatzeko “Kultur Egunak”, abenduaren 4tik 6a arte.

15. HERRIKO GAIEI BURUZKO INFORMAZIOA.

1. Herriko zenbait kaleen izenak gaztelaniaz daudela kontutan hartuz, ahobatez erabaki dute udalerriko kaleen izendegia euskaratzeko eskatzea Euskaltzaindiari.

2. Eztabaidatu dute gero Malerrekako Mankomunitateko egoitza berria eraikitzeke Donezteben etxabea erosteko dauden 2 aukerari buruz, “Amezti” edo “Zazpigurutze”. Aukera bakoitzak dauzkan abantailak eta kontrakoak eztabaidatu ondoren, bozketari ekin diote eta hau izan da emaitza: “Zazpigurutze”ko etxabea erostearen alde agertu da Iturengo Udala.

3. Alkate Jn.ak Sunbillako Udalan izandako bileraren berri eman du, ur-hornidurako 3. faseko obrari buruz.

4. Ondoren, ezagutuztat eman dituzte agiri hauek: Herri-Osasuneko Institutuak bidali dituen ur-analisien emaitzak; Ingurugiro eta Urako zuzendari orokorraren 1878/2009 ebazpena, baso-lanak egiteko baimena eman duena.

16. ESKAERAK ETA GALDERAK.

Ez dira egin.

Eta bertzerik ezean, arratsaldeko 13ak eta 15 minutu direnean, alkate Jn.ak bilera akituztat eman du, eta nik, neronek, idazkaria naizenez, ziurtatzen dut.